

ERRAMUN OSA IBARLOZA

EUSKARARIK TXARRENA? ERABILTZEN EZ DENA DA!

Ez dago dudarik, esanak esan, euskarak aurrera egitea lortu du eta XXI. mende hasierako hizkuntzen artean bizi da, euskalari eta euskaltzale batzuen XIX. eta XX. mendeko hil-kanpaien iragarpenak gorabehera. Gainera, ez da nolana bizi, azken hamarkadetako ahaleginak hizkuntza noranahikoagoa bilakatzea erdietsi baitute, etxetik, lagunartetik, zokoratuta zegoen eremuetatik unibertsitatera, administrazioa, hedabideetara, jakintza-arlo desberdinetara eta abarretara jauzi eginez. Euskara, beraz, inoizko hiztun gehiago dituela bizi da, euskaraz gero eta gehiago bizi gara!

Azken hamarkadetan gurean jazotakoa hazkunde baten kronika da. Izan ere, helduen euskalduntzearen, bai eta euskarazko irakaskuntzaren puruz ere, milaka hiztun irabazi ditu gure hizkuntzak. Hazkundera nabaria da Euskal Autonomia Erkidegoan, motelagoa Nafarroan eta, bereziki, hiztun berrien ekarriari esker, galtze prozesua eten da Ipar Euskal Herrian. Bistan da, eremu bakoitzean gertaturiko bilakaeraren atzealdean, euskarari emaniko aitortzak -erabateko ofizialkidetasunetik aitormen hori ez izatera igarotzen dena-, herri-erakundeetatik sustaturiko hizkuntza politikek, bai eta eremu bakoitzean euskalgintzak duen pisuak eta aitormenak azaltzen duela... baina garrantzitsuena da aurrera goazela.

Erabilera-eremuak ere irabazi dira. Horretarako, ez dago dudarik, Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko Biltzarra mugari garrantzitsua izan

“Hizkuntza -dio Casablancako unibertsitateko irakasle den Abdetfattah Kilitok- xaboiaren kontrakoa da: zenbat eta gehiago erabili xaboi, orduan eta urrituago eta xahutuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago”.

Beraz, hitza biziko bada nahitaezkoa da errepika, nahitaezkoa da jendearen ahotan behin eta berriro egon dadin.

(Andimaren liburu bat eskuan,
Bernardo Atxaga)

zen, bertan ezarri baitziren euskara batuaren zimentarriak. Inork gutxi gogoan badu ere, batasunaren aldeko jarduna ez zen XX. mendera mugatu, lehenago ere adierazi baitzen gai horrekiko kezka, baina ez zuen aurrerabiderik izan. Horrela, Euskaltzaindia sortzeko helburuen artean zegoen batasunaren gaiari buru-belarri heltzea eta prozesu hori bideratzea. Horretan saiatu zen Euskararen Akademia lehenengo eredu aurkeztuz, aurreko mendearen 30. hamarkadan. Baina Frankoren kolpeak eta osteko diktadurak ezerezean laga zuten ahalegin hori.

Batasunaren aldeko ahaleginak berrartu ziren pasa den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran. Lehenbiziko formulazioa egin zen Baionako 1964ko Biltzarrean, Euskal Idazkaritzaren babesean antolatutako bilkuran. Hortik Arantzazuko 1968ko bilkura etorri zen -lehenbizi Oñatin egitekoa zena, baina Gipuzkoa salbuespen-egoeran zegoenez gero, azkenean, babes bila, Arantzazun egitea erabaki zen-; alabaina,

**SI EL EUSKERA LOGRA PERDURAR, SI
ENCUENTRA SU SITIO EN LA PLAZA DE
LAS LENGUAS, SERÁ DE LA MANO DEL
EUSKERA UNIFICADO; DE LO CONTRARIO,
NO TENDRÁ CONTINUIDAD**

prozesu horretan sortutako eztabaidak eta katramilak gainditzeko, bai eta batasunari bultzada erabakigarria emateko ere, bilkura benetan garrantzitsua Bergarakoa izan zen, 1978ko irailaren 4an abiarazi zena.

Gaur egungo belaunaldiek ez dute ezagutzen batasunik gabe non ginen, ez eta batasunari esker nora iristea lortu dugun ere. Euskarak irautea lortuko badu, hizkuntzen plazan egongo bada, batasunari esker izango da, bestela, ez baitu iraungo. Izan ere, euskalkiak eta azpieuskalkiak gure hiztun-komunitatearen barreiaduraren emaitza dira, ez besterik. Nolanahi ere, guztien oinarria euskara da, horixe da gure hizkuntza, berak elkartzen, hurbiltzen, ehuntzen dituela mugaz bi aldeetako euskaldunak.

Eta erabilera? Garai bateko elebidunek are gehiago erabiltzen zuten euskara gaurkoek baino. Arrazoiak ugariak dira. Bereziki, euskaldunen kontzentrazio handiko eremuetan bizi ziren, ama-hizkuntza euskara zuten eta horietako asko are hobeto moldatzen ziren euskaraz... Gaur egungo elebidunek, ordea, beste ezaugarri batzuk barrurartzen dituzte. Gehienek -zenbat eta gazteagoa ehunekoa are nabarmenagoa- bigarren hizkuntza gisa eskuratu dute, euskarak presentzia urria duen herri eta hirietan bizi dira eta are hobeto moldatzen dira erdaraz, euskaraz baino. Horra hor, beraz, aurrera begira kontuan hartu beharko genituzkeenak.

Hizkuntza baten berreskuratze-prozesua ez da berehalakoan gertatzen, continuum batean aztertzea komeni da. Horrela, euskara gure bizitzaren arlo desberdinetan zenbat eta presenteago eduki, euskara erabiltzeko zenbat eta aukera gehiago izan... orduan eta belaunaldi berriek atxikimendu handiagoa izanen diote gure hizkuntzari, belaunez belaun transmitituz eta horrek euskararen alde eginez. Gaurko errealitatea kontuan, 25 urte barruko hiztun-komunitatea indar dezaketen jardun-eremuetan jarri behar ditugu atentzioa, indarra eta bitartekoak. Euskarari ate berriak ireki behar dizkiogu XXI. mendearen hasieran. Horixe da

kateak etenik ez izateko dugun bide bakarra! Euskaraz egin, eginarazi... bizi, azken finean.

Gure hizkuntza ez da museoa batean hilik dagoen zerbait... hiztun-komunitateak etengabe moldatzen duen zerbait baizik. Horrela, garrantzi handikoa da gure hizkuntza mugez bi aldeetako dela kontuan hartzea. Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko hiztunok elkarri lagunduz, elkarren arrimuan indartu gaitezke soil-solik, bestela, gure gorputzaren zati esanguratsu bat galduko baitugu... eta hortik datorkeen gangrenatik gorputza oso-osorik.

Behinola, Nafarroako Jaso Ikastolako guraso batek bere seme eta alabaren hizkuntzaren kalitateaz kezkatuta galdetu zidan euskara txarra ez ote zerabilten. Erantzun nion "Euskararik txarrena erabiltzen ez dena" dela, euskararen bidean urratsak eginez, egin dezakegulako aurrera bakar-bakarrik. Halaber, aditzera eman nion euskararen kalitatearen kontua ez zela hiztun berrien ardura, guztiona baizik, irakasleena, bitartekari linguistikoena, hedabideena, politikariena, kultur sortzaileena, aisialdi eta kirol monitoreena... eta abarrena. Guztion esku dago euskararen sena gordez, hurreko euskara eta kalitatezkoa erabiltzea.

Kezka hauek eta gehiago nerabilzkien joan den uztailaren 12ko "Euskararen erabileraren gakoak" izenburuko mintegia antolatzen jardun genuenean. Aipatu mintegia Sabino Arana Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzatarteko burutu zen. Orain, orduko hartan emaniko hitzaldiak, bai eta euskararen erabileraren gaineko askotariko iritziak bildu eta argitaratu nahi izan ditugu Hermes berezi honetan. Izan dadin ale hau, zein han-hemen ageri diren bestelako iritziak ere, gaur eta bihar egin behar dugun bidez gogoeta egiteko lagungarri, gure hiztun-komunitatearentzat nahi dugun geroaren indargarri.

**TENEMOS QUE ABRIR NUEVAS PUERTAS
AL EUSKERA A COMIENZOS DE ESTE
SIGLO XXI. ESE ES EL ÚNICO CAMINO
QUE TENEMOS PARA QUE LA CADENA
NO SE ROMPA. UTILIZAR EL EUSKERA Y
ACTIVAR A LOS Y LAS HABLANTES PARA
QUE LO USEN. AL FIN Y AL CABO, VIVIR
EN EUSKERA**